





*Teoria estetikoa eta ingurune  
naturala: hurbiltze bat*  
Aitor Izagirre

Pentsamendu filosofikoak jorratu dituen arloetan gutxi dira argitasunari «estetika» izeneko arloak adina eragozpen jarri dionik. Estetikaren urak uherrak badira ere, asko eta asko dira bertan murgildu direnak argitasunaren bila; agian, beste inon baino gehiago. Zimendu ahulak dituela nabarmena izan arren, beste leku gutxitan bezala jarraitu nahi izan da bertan eraikitzen. Azken mendeko filosofia testuekin corpus linguistiko bat eratuko bagenu, argi ikusiko litzateke «estetika» hitzaren eta bere deklinazioen nonahikotasuna, eta aldi berean ohartuko ginatke zein leku gutxitan ahalegindu garen bere oinarriak argitzen. Egiteko dagoen azken zeregin horretara bideratu behar dira, hein batean edo bestean, arlo horretan ikertzen ari direnen ahaleginak. Edota, gutxienez, ahalegin horiek ez ditugu oztopatu behar.

Izan ere, ez da erraza terminoa bazter uztea gizakiaren esperientziako alderdi batzuek kezkatzen gaituztenean. Eta ez da erraza ur zikin horietan egokia izan daitekeen adierazpenaren argitasun eta zehaztasuna aurkitzea. «Estetika» hitza erabiltzen dugunean lausotasun batekin hitz egiten dugu edota, gutxienez, anbiguotasun batekin. Hitz honen erabilera diskurtsoen testuinguru desberdinetan agertzen da, eta oso ideia guztiz desberdinak adieraziz. Azken hamarkadetan geroz eta agerpen handiagoa

hartuz, terminologia popularrean sartzeraino (dena are gehiago uhertuz), joan den nozioa erakusten du. Hemen berariaz teoria filosofikoaren arloaz ari naiz, horren baitan lantzen eta loratzen baita estetika diskurtso batzuen nozio nagusi gisa.

### *Balizko bi norabide: Natura-Kultura*

Esandakoaz oharturik, funtsezko ezagutza (behin-behineko premisa) batetik abiatuko naiz: gizakiaren izatean bere-berezkoa den dimentsio bat dago, eta esan dezakegu horrek esperientziaren *dimentsio estetikoa* dei diezaiokegun erakuntza kognitibo garbia daukala. Dimentsio hori nolabaiteko irizpideetan gorpuzten eta mamitzen da, baita iritzi horiek motibatzen (edo eragiten) dituzten zenbait ekintzetan ere. Iritzi horiek, izatez, aurretikoak edo aldi berekoak izan daitezke, baina baita atzeraeraginezkoak ere: gogo egoera bat edo igarotako ekintza bat judizio estetikoaren formaren bidez eraiki (deskribatu) daitezke. Hasiera-hasieratik, halaber, bi maila bereizi behar dira. Alde batetik, teoriaren maila, eta bestetik, teoria horren objektua. Lehena *teoria estetikoa* edo diskurtsoa izango litzateke. Bigarrena, *objektutzat jotzen ditugun errealitateko alderdi batzuek osatuko lukete*, hau da, teoriaren xedeko objektuak direnak, hala

- 1 Gauza desberdinak adierazteko erabiltzen hasia baita hitza; esaterako, Kantek berak estetika transzendental terminoa hautatzen du, printzipioz beste esparru bateko zerbaitetaz ari delarik.

nola iritzi estetikoak, ezaugarri estetikoak, eta abar.

Filosofian beti egon ohi dira gaur egun «estetika» deitzen diogun gaiari buruzko galdera eta arazoak; baina estetika duela gutxi, modernotasunean, eratu da teoria filosofiko gisa. Alabaina, horrek ez du esanahi teoria mota honi buruzko kezka jatorriz modernotasunekoak direnik. Berez filosofia deitzen zaionaren (Grezia) hasiera beretik agertzen dira teoria estetikorako gakoak diren galderak. Hala ere, horiek ez dute holako galderei gerora emango zaien tratamendurik hartuko, ez behintzat era sistematiko eta kategorikoan.

Esan dezakegu teoria estetiko XVIII. mendearen inguruan mamitu edo jaino zela nolabaiteko sendotasuneko beste gorputz bat bezala. Horrela, beraz, galdera multzo bat beste gorputz berri batean gauzatu zen, eta horrek gerora aukera emango du galdera horiei buruzko teoria egiteko. Hiztegia aberastu egiten da eta literatura ugaltu. Baina horrekin batera, areagotu egiten da, berebat, funtsezko zenbait alderditan nahastea sortzeko. Gehienbat, «estetika» ren nozio nagusiaz eta bere erabilera desberdinez ari naiz<sup>1</sup>, non pentsaera badaezpadako sinesmenetan babes daitekeen, adibidez, «substantzia estetiko» en izatea izan daitekeenean. Hortik, beraz, goiko lerroetan egin dugun maila bereizketaren garrantzia.

- 2 Hitzak oihartzun klasikoak dakarkigun arren, Alexander Baumgarten alemaniar filosofoak finkatzen du, 1735eko lan batean.
- 3 Ceroago esango dudan legez, bi norabideok ez dira kontrajartzen eta, aitzitik, elkarri lagundu beharko liokete.
- 4 Kant, Immanuelle [1790] *Kritik der Urteilskraft* (Judizioaren kritika). Gaztelaniaz Manuel García Morentek itzulia: *Crítica del Juicio*. Madrid: Espasa-Calpé, 1977
- 5 Britaniar enpirismoaren esparruko lan klasikoei lotzen natzaie. Ikusi, adibidez, goitiarrari buruz: Burke, Edmund [1757] *Philosophical Enquiry into the Origin of our Ideas of the Sublime and Beautiful*. Gaztelaniaz Juan de la Dehesak itzulia: *Indagación filosófica sobre el origen de nuestras ideas acerca de lo sublime y de lo Bello*. Murcia: Arquitectura, 1985; eta pintoreskoari buruz: Gilpin, William [1792] *Three Essays on the Picturesque* reprinted in Farnborough: Gregg, 1972.

Horrek laguntzen digu une oro kontuan izaten teoria estetikoaz eta judizio estetikoaz (eta judizioaren ekintza horren eta horrela juzgatutako gauzen arteko harremanaz) hitz egin dezakegula, baina ez, esate baterako, substantzialki «estetikoak» diren gauzez.

Aldi moderno honetan, «estetika»<sup>2</sup> bataiatu berriari buruzko diskurtso filosofikoak ugaltzen ari diren une honetan, norabide teoriko bikoitza<sup>3</sup> agertzen da, eta norabide horietako bakoitza bere xedeko gauzakiaren izaeraren arabera zehazten da. Alde batean, arteari buruzko gogoetak daude, gizateriak sortzen dituen gauzei buruzkoak. Bestean, filosofia estetikoari buruzko lehen lan garrantzitsuetan (hirugarren kantiar kritika zedarriztat hartuz<sup>4</sup>) indar biziz agertzen dira natura eta bere balorazioa termino estetikoetan. XVIII. mendean agertu eta garatutako kontzeptu batzuek, hala nola gauza «sublimea» edo «pintoreskoa»<sup>5</sup>, hasierako une horretako gogoeta teorikoetan naturak merezi duen garrantziari buruzko informazioa ematen digute.

Hasiera batean, ez dirudi bi arlo horiek elkarrekin gatazkan daudenik. Alabaina, denborarekin batera, naturari

- 6 Badira salbuespenak, jakina. Erromantizismoa eta haren naturararekiko kezka izango litzateke bat.
- 7 Kriesteller, Paul O. [1951] «The Modern System of the Arts: A Study in the History of Aesthetics». In *Journal of the History of Ideas*. Volume 12, 4: 496-524. Reprinted in Kivy, Peter (Ed.) *Essays on the History of Aesthetics*. New York University of Rochester Press.

buruzko gogoeta estetikoak gutxituz doa diskurtsoetan ia-ia iraungitzeraino<sup>6</sup>. Hori gertatzen ari denarekin batera, «artearen sistema modernoa» eratzen eta sendotzen da<sup>7</sup>, hegeliar estetika idealistako oposizio bitarraren laguntzaz: *arte vs. natura*.

Horrela, beraz, banaketa bat hasiko da, eta ondorioz arteari buruzko hausnarketak nagusitasuna (ia berariazkoa) erdietsiko du; beste era batera esanda, azken instantzian ekintza indibidual eta sozialaren aldean dagoenari buruzko hausnarketak, azken batean kultura menderatzeak. Hautu teoriko horrek berariaz arteari atxikitako galdera jakineko sail bat «kezka estetiko» tzat hartzea ekarriko du, hala nola: artistaren intentzioa, obraren historia eta interpretazioa eta oro har artearen ontologia. Esandakoaren eredu da luzaroan «estetika» eta «artearen teoria» elkarrekin identifikatu izana, itxuraz behintzat, arazorik gabe eta estetika bera jakintza horretara mugatuz, eta ahaztuko bagenu bezala teoria estetikoak hasiera batean naturaren inguruko hausnarketaz ere arduratu zela. Gauden leku honetan, emana zaiguna adierazten du «natura»k, gure esku-hartzerik gabe garatzen dena, nahiz eta gaur egun nabarmena izan garapen bide horretan dugun esku-hartzea etengabea dela. Hortaz, era honetan teoria estetikoak bi norabide posibleen aurrean kokatzen dela ikus dezakegu: bata, naturari gehiago

8 Bereizketa honi buruz, ikusi Davidson, Donald (1982) *Essays on Actions and Events*. Oxford: Clarendon Press.

9 Funtsean anglosaxoien munduan, eta batik bat Estatu Batuetan, non beti oso bizia izan baita pasaiari buruzko kezka eta babestu nahia. Ikusi bilduma hau: Allen & Lintott, Sheila (Eds.) [2008] *Nature, Aesthetics, and Environmentalism. From Beauty to Duty*. New York Columbia University Press.

10 Aurrerantzean IE.

11 Non agertzen baitira gai etiko, politiko edo ekonomikoak ere; baina uste dut funtsezkoa dela maila horiek bereiztea, nahiz eta, praktikan, gurutzatzen eta nahasten diren eta, oso gutxietan, aparte agertzen diren.

begiraten diona, eta bestea, kulturari (arteak une jakin bateko kulturaren sentiberatasun estetikoaren adierazpen goitiartzat hartuz). Eta banaketa horrek arazotsua eta iluna ematen badu ere, xehetasunera jotzen badugu, esan ahal izango dugu, ordea, *grosso modo*, naturala dena gertaeren ordenaren baliokidea dela<sup>8</sup>; kultura dena, ostera, ekintzen baliokidea dela. Teoria estetikoak, horrela, bi norabidetan banaturik agertzen da, azterketaren xedearen izaeraz bereizita. Eta bide horietako batek hilda dagoela ematen badu, bestea zapaldueria dela esan dezakegu. Eta badirudi, aukera bikoitz horren aurrean, teoria, gorago esan den bezala, esperientziaren dimentsio estetiko horrek esku-hartzen duenean pertsonak egiten zutenaz kezkatuago agertzen zela, emana zetorkien eta gizateriaren izaera eta partaidetzatik bereizita zen ingurune naturalean, besterik gabe, juzgatzen edo baloratzen zutena baino.

### *Paisaia eta paisaia berriak*

Balizko bikoiztasun horren jarraipena hurbiletik egiteak gehiago zehazteko eskatuko luke. Baina egia da, halaber, panoramaren funtsezko alderdiei dagokienez, *naturaren bidea* nabarmen baztertuta gelditu zela, harik eta duela gutxi, XX. mendearen

bigarren erdialdera, iraganeko gai zahar haiek berpizten hasi diren arte<sup>9</sup>, oraingoan *Environmental Aesthetics* (Ingurumenaren Estetika)<sup>10</sup> izenburupean. Eta berpizkunde hori, hain zuzen ere, *estetika = artearen teoria* identifikatzearen problema sortzetik dator. Ingurumenaren estetikak (IE) hasierako funtsezko kezka batzuk berreskuratzen ditu, baina ikuspuntu teoriko berri batetik begiraturik. Testu honetan, perspektiba edo ikuspuntu berri horrek nora garamatzen ikusi nahi nuke, funtsezko maila batean bada ere.

Bideak bitan banatu arren, natura, gutxi edo asko, beti baloratu izan da estetikaren bidetik. Eta are gehiago artearen praktikatik. Teoria estetikoaren arloan kokatuz baino ez da ulertu behar bide banaketa edo norabide bikoizketa hori. Inguruneak indarrez hunkitu ohi gaitu, estetikoki, gizatarrok. Eta ingurunea, duela gutxira arte, naturala dena izan da gehienbat. Paisaiak (gai bezala, baliabide bezala, objektu bezala) naturari begiratzeko modu bat adierazten du, eta bere baitan daukan alderdi ideologikoa<sup>11</sup> albo batera utziz, nabarmendu behar da natura, batez ere, *estetikoki* begiratzeko modu bat dela. Eta begiratzekoa baino gehiago, juzgatzekoa.

Paisaia, izatez, margotzearen arloan jaiotzen da, hots, artean. Italiako Berpizkundetik hona, paisaiaren kontzeptioa

12 Honi buruz, ikusi Edward Bullough autorearen obra klasiko hau: «'Psychical Distance' as a Factor in Art and as an Aesthetic Principle», *British Journal of Psychology*, Vol. 5 [1912], pp. 87–117.

13 Carlson, Allen [2000] *Aesthetics and the Environment*. London: Routledge.

14 Schafer, R. Murray [1977] *The soundscape: our sonic environment and the tuning of the world*. Rochester, Vermont: Destiny Books.

natura *ikusteko* modu konkretu bat bezala ari da eraikitzen (kulturaliki). Modu hori gehienbat ikusizkoa eta urrutikoa<sup>12</sup> izan da. Urrutikoa izatearen ideia horri dagokionez, asko hitz egin da estetikaren teorian. Urrutiratze fisikoa (ikusmena delarik hobekien berma dezakeen zentzumena) eta urrutiratze psikikoa elkarrengandik bereiztea, *Poetika* aristotelikoan ere agertzen dena. Nolanahi ere, bi urrutiratze horiek indartu egiten dute subjektu estetikoak ikusletzat hartzen duen kontzeptzioa, eta hala gauzek «ukituko» ez balute bezala agertzen da, hain zuzen ere, margotutako paisaia bat balitz bezala.

Baina naturaren kontsiderazio garaikideak, IETik egiten denak, paisaiaren paradigma klasiko hura gainditu du. Alabaina, paisaia hori etengabe eta une oro agertzen zaigu ispilu bat bezala, non islatuta ikusi nahiko genukeen «naturaren bide hil» hartan isiltzen ari zena. IEren egoera berrian, aldatu egiten dira elementu horietako batzuk. Lehenbizi, esperientzia estetikoaren ideia klasikoan funtsezkoa den *urrutiratze* hura eten egiten da. A. Carlsonek dioen bezala<sup>13</sup>, ingurumena hautematean subjektua hautemandako objektuan txertaturik dago. Urrutiratze ideal hori, estetikoki erlazionatzen den inguruneaz inguraturik, ezabatu egiten da. Izan ere, paisaiaren jatorri piktóricoak

jatorri eta bere berariazko ikuskizun jitea jite, ez dugu ahaztu behar, ingurumenak zentzumen guztien indarrarekin eragiten digula. Eta gainontzeko zentzumen guztiak gehitze hori alderdi berria da, paisaiaren ideia<sup>14</sup> klasikoari dagokionez. Horretarako, interesgarria gertatzen da (ordain gisa) R. Murray Schaferrek berriki egindako ekarpenak kontuan izatea, hala nola proposatu digun *soinu paisaiaren* ideia. Hori egitean gainontzeko zentzumenei ateak irekitzen dizkie, zeren bestela zein aitzakia jarriko dugu usaimena, dastamena edota sentsazio termikoak baztertzeko, entzumena onartu eta gero? Urrutitasunaren argudioari koartadaren bat gelditzen bazitzaion (gutxienez, irudikapen artistikoaz kanpo), hori ikusizkoaren nagusitasunetik baino ez zitzaion etorriko. Baina entzumena (ikusmenaz oso bestelako zentzumena) gehitzearekin, eta berarekin bat gehitzen dugun gainontzeko zentzumen guztiekin, lortzen duguna berehalako eta zuzeneko presentzia (zuzenean aktibatutako zentzumenen bidez sentsorialki bitartekatua) baino ez da. Carlsonen beraren hitzak erabiliz, «gure inguruneak denez gero, atzematen den objektuak gure zentzumen guztiei eragiten die. Objektu hori atzematen edo apreziatzen dugun bitartean, ikusi egiten dugu, entzun egiten dugu, sentitu egiten dugu, usaindu egiten dugu;

batzuetan, baita dastatu ere. Azken batean, atzematen ari garen ingurumen-objektuaren esperientzia —gure apreziatio estetikoaren ezaugarriak moldatuko dituena— intimoa, erabatekoa eta inguratzailea da funtsean»<sup>15</sup>.

Paisaia berariaz pintura, marrazki eta ikusizko arteetako bazen ere, paisaia aniztasun bati eman dio bide. Edota, beste era batera esanda, paisaiaren beste kontzeptio bat sortu da, beste *zentzumen* batzuk dituena eta hortik, *jite* berri bat. Gogorarazi behar da, halaber, paisaiak aspaldi utzi zuela irudikapen artistikoaren kortsea. Hala, badugu lexikoan lehen irudikatua izan ohi zen gauza berari buruzko hitzaren adiera bat (paisaia, Arno menditik hartua), baina horrek ez du halabeharrez gauza horri buruz pinturan edo grabatuan, adibidez, irudikatzen zena (Turnerren paisaia) adierazten. Baina hori ez da gauza berria.

Gertatzen dena da leku-aldatze bat dagoela objektutik ingurunera. Lehen arreta objektu partikularrengana bideratzen bazen, orain subjektuak bere burua hautemate «objektu»aren muinean ikusten du: ingurunea. Holako lekualdatzean, diskurtsoak bazter uzten ditu zenbait kontzeptu, hala nola artistaren intentzioa edo tasun artistikoak. Alabaina, beste batzuk bere hartan jarraitzen dute, adibidez, «esperientzia estetiko» edo «judizio

estetiko» . Horrek agerian uzten du nozio horien funtsezko jitea estetikaren teoria orokor bat zehazterakoan. Edota beste modu batera esanda: objektu artistikotik ingurune naturalera (teoria estetikoari dagokionez) purgatu ondoren, funtsezko eta oinarritzko elementuak gelditzen dira, teoria estetikoaren edozein kasu partikularretan komunak izan behar direnak, teoria hori naturari buruzkoa izan, arkitekturari, diseinuari edota arteari buruzkoa izan. Eta, nire ustez, oinarritzkoak direlako oinarrietan jarraituko dute beti. Alabaina, horrek ez du ukatuko teoriaren kasu partikular bakoitzean beste elementu berri batzuk gehitzea, kasu protagonista bat aipatzearen, artearen teoria estetikoan ere gehitu egin behar direla dakigun bezala.

*Abiapuntu komuna: ingurune naturala, teoria estetiko eta oinarriak*

*Environmental Aesthetics* aipatuak anbiguotasun interesgarri bat dauka. Joera horretako testu garrantzitsuak irakurtzean esplizituki ikusten bada ere hizpide duguna «natura ingurunea» dela, ingelesezko «environment» hitza «ingurune» hitzarekin itzul daiteke besterik gabe. Ingurunea kontzeptu askoz ere oinarritzkoago eta orokorragoa da, eta horri



garrantzitsua deritzot. Ingurunea, agente gisa kokatu garen inguruan dagoen lekua da; espazio bat, bere baitan hartzen dituen unitate gutxi-asko indartsuan dauden elementu guztiak: ingurune unitatea. Inguru hitzak berak ere adierazten digu norantz jo behar dugun, zeren hortik baitator inguratu aditza, hesitzea, barruti bat markatzea edo mugatzea, balizko estimuluak gordetzen duen esparrua, non agentea mugitzen den, eta jarduten duen.

Lan honetan, ingurua «egoera» ideiarene beste aurpegi bat bezala pentsatzea interesatzen zait. Inguru edo ingurune bat zentzumen terminoez ulertzeko egoera bat izan daiteke; zehazki, zentzumenentzat *inputs* terminoetan. Objektu berezi batekin gertatzen denaz bestela, ingurunea ez da hautematen osorik kolpe batez, nolabait esateko, muga kognitibo bat dago, hedatuagoa. Aldi bakar batean bere barruan dagoen guztia besarkatzea galarazten didan muga bat. Ingurune baten barruan bere atal bat banintz bezala mugitzen naiz, bere izaeran eraginez eta aldi berean berak neure izaeran eraginez. Eta horrek behin eta berriro neure zentraltasunera igortzen nau, inguru horrek hesitako eta sentsozialki bere eraginez ukitutako subjektu bezala. Subjektuaren zentraltasun etengabe bat dago, naiz eta hori ez egon gauzen bereizitasunean, beraiekin etengabe

kontaktuan eta elkar eragiten baizik. Kognitiboki eboluzionatuta dagoen izaki batera igortzea, nolakotasun bereziko beste izaki natural bat balitz bezala; iritziaren sorleku den izakia, baita modu berezi horrek (estetikoa izan ohi duguna) eragiten dion kontzientziarena ere eta, nahitaez, kontzientzia horretatik ere jarduten duena. Ingurunearen kasuak, beraz, gorago aipatu ditugun bi norabide horien abiagune bakar horretara igortzen gaitu. Abiagune berberera igortzen gaitu, non bai artearen teoria estetikoak bai naturaren teoria estetikoak atzera egin behar duten. Horregatik aipatu ditut gorago bi norabideak, ez daudela elkarren kontra, elkarri lagundu beharrean baizik.

Eta artikulua honetan neure buruari galdetzen diot ea orduan zer gertatzen den teoria estetikoarekin objektutik ingurunerako ihesaldi hori planteatzean. Berez naturala denaren aurrean jartzen gaitu ingurunearen estetikak, gorago aipatutako (esaterako eta bat aipatzearen, artearen ontologia) galderetatik urrunduz. IE, izatez, lehenbizikoa da eta, batez ere, inguruneakoa. Inguruneak asmo estetikoarekin sor daitezke, artean abangoardia historikoetatik egin ohi den bezala, eta horrela artearen arlo kulturalera sartzen gara. Baina aurretiaz eta lehen instantzian (eboluziozkoan eta biologikoan), animalia gizatiarraren berezko

ingurunea natura da. Eta hortxe datza IEren justifikazioetariko bat. Ohartarazi nahi dut honetan guztian interesgarriena iristen garen funtsezko maila dela; abiapuntu perfektua edozein teoria estetiko orokor eraikitzeko (behin-behineko eta balizko adarrekin beste hainbat arlotan, hala nola artea, diseinua, arkitektura, kultura, eta abar). Nire ustez sartu eta entzun egin behar da IEn zertaz ari diren hitz egiten, zeren hori berebiziko eremua da, mailarik funtsezkoenean, gizakiaren dimentsio estetikoaren alderdi hauek ulertzeko. IEren bidez naturak teoria estetiko filosofiko garaikidearen testuinguruan egiten duen agerpen indartsuak, horrela, berebiziko garrantzia hartzen du.